BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

226. zk. 2026, azaroak 24. Asteartea 1. orr.

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Kirolaren Udal Erakundea

Basauri Kirolak Erakunde Autonomoan Mantentze-lanetako, Zaintzako eta Kontroleko Laguntzaile lanpostu bat (1) txanda irekiaz oposizio-lehiaketa sistemaren bidez behin betiko betetzeko Oinarri arautzaileak eta deialdia.

Basauri Kirolak erakundeko Lehendakaritzak 0393/2026 zenbakiko Ebazpena eman du 2026ko azaroaren 18an, eta honako hau xedatzen du bere ebazpen-zatian:

Lehenengoa: 2024. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako Mantentze-lanetako, Zaintzako eta Kontroleko Laguntzaile lanpostu bat (1) behin betiko betetzeko, lehiaketa-oposizio bidez, hautaketa-prozesuaren oinarri arautzaileak onartzea. Oinarri horiek Ebazpen honen eranskin gisa gehitu dira.

Bigarrena: Ondoren aipatzen diren plazei dagozkien hautaketa-prozesuen deialdia egitea:

Kodea	Lanpostuaren izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Hizkuntza-eskakizuna	Derrigortasun data
11.32	Mantentze-lan, Zaintza eta Kontroleko laguntzailea	1	C2	2 (B2B2)	Bai

Hirugarrena: Oinarrien eduki osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea, baita Estatuko Aldizkari Ofizialean zehaztutako laburpena ere.

Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Ataleko dagokion plazaren aurrean.

Hala ere, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpen hau eman duen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Basaurin, 2026ko azaroaren 18an.—Basauri Kiroletako Lehendakaria, Jon Zugazagoitia Sagarduy

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

BASAURI KIROLAK ERAKUNDE AUTONOMOAN MANTENTZE-LANETAKO, ZAINTZAKO ETA KONTROLEKO LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT BEHIN BETIKO BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA

1. Oinarrien helburua

Oinarri hauen xedea da Basauri Kirolak erakunde autonomoari atxikitako mantentze-lanetako, zaintzako eta kontroleko laguntzaile plaza bat (1) betetzeko deialdia arautzea, txanda irekiko oposizio-lehiaketaren bidez. Lanpostu hori langile lan-kontratudun finkoentzat gordeta dago, eta 2024ko lan-eskaintza publikoan jaso zen.

Lanpostua betetzeko izendatuak ez diren izangaiek lan-poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Lan-poltsa hori antzeko zereginak dituzten lanpostuak edo lanpostu bera aldi baterako betetzeko erabiliko da, hamabosgarren oinarrian jasotakoaren arabera.

2. Plazaren ezaugarriak

Plaza bat (1) deitzen da, 11.32 kodearekin identifikatutako lanpostu bati dagokiona (mantentze-lanetako, zaintzako eta kontroleko laguntzailea), langile lan-kontratudun finkoarena. Txanda irekian beteko da, eta honako ezaugarri hauek ditu:

— Lanpostuaren kodea: 11.32.

— Azpitaldea C2.

— Maila: 15.

— Hizkuntza-eskakizuna: B2B2, derrigortasun data igarota (2008ko maiatzaren 23).

— Lanaldia: osoa.

3. Eginkizunak

Bete beharreko zereginak lanbide-kategoriari dagozkionak izango dira. Hona hemen horietako batzuk (adibide gisa):

— Basauri Kirolak erakunde autonomoaren instalazioen mantentze- eta garbiketa-lanak egitea, egoera onean egon daitezen (hala nola iturgintzako garbiketa eta mantentze prebentiboa eta zuzentzailea, oinarrizko elektrizitatea, kalitate-kontrola eta dosifikazio kimikoa igerileku-ontziko uretan, sarrailagintza edo kirol-espazioetako konponketak).

— Instalazioetarako sarbidea kontrolatu eta zaintzea.

— Jendeari arreta ematea, zerbitzuei buruzko informazioa ematea, ikastaroetako eta jardueretako inskripzioak egitea, eta sarrerak, zerbitzuak eta erreserbak kobratzea.

— Kutxako kontaketa eta kutxaren kontrola egitea, eta bildutakoa bankura sartzea.

— Goragoko batek agindutakoa, baldin eta bere eskumenekoa bada.

4. Aplikatzea dagokion araudia

Deialdiari honako arau hauek aplikatuko zaizkio:

— Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

— 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa.

— 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.

— Osagarri gisa, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura langileak sartzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.

— 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.

— 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

— 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

— 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

— 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

— 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.

— 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

— 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

— Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

— 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

— Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina.

— Basauri Kirolak KUE erakunde autonomoko langile lan-kontratudunen indarreko hitzarmen kolektiboa.

— Deialdia arautzen duten oinarri orokor eta espezifiko hauek.

5. Parte hartzeko betekizunak

Hautaprobetan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

a) Honako inguruabar hauetako bat ematea:

— Europar Batasuneko herritarra edo halako baten senarra/emaztea izatea (legez banatuta egon gabe); edo/eta Europar Batasuneko herritar baten edo halako baten ezkontidearen semea/alaba izatea (baldin eta bikotea legez banatuta ez badago, hogeita bat urtetik beherakoak ez badira; edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, mendekotasun-egoeran ez badaude). Hala xedatzen du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluak.

— Europar Batasunak egin, eta Espainiak berretsi dituen eta pertsonen zirkulazio askearen printzipioa darabilten nazioarteko itunen aplikazio-eremuaren barne egotea.

b) Hamasei (16) urte edo gehiago izatea, eta derrigorrezko gehieneko erretiro-adina ez gainditzea.

c) Eskuratu nahi den lan-kategoriako finkatutako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

d) Diziplina-espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea administrazio publikoetatik, konstituzio-organoetatik edo autonomia erkidegoetako estatutu-organoetatik. Eta ebazpen judizial bidez kargu publikoetarako zein funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko desgaikuntza absolutuko edo bereziko zigorra jaso ez izana. Beste estatu bateko herritaren kasuan, desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta jatorrizko estatuan enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik jaso ez izana, baldintza beretan.

e) Eskatutako titulazioa edukitzea edo titulazio hori lortu ahal izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datarako; eta oinarri espezifikoetan adierazitako gainerako baldintzak betetzea. Bestalde, atzerrian lortutako tituluak dituztenek egiaztatu beharko dute badutela dagokion konbalidazioa, edo, bestela, homo-

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

logazioa jasotzen duen egiaztagiria. Deialdi honetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatua edo baliokidea (eskola-graduatua edo 1. mailako lanbide-heziketa) eskatzen da.

f) Euskararen B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen ziurtagiria edukitzea edo, hala badagokio, hura lortzea, 9.1.3. oinarrian ezarritakoaren arabera.

g) Indarreko araudiaren araberako desgaitasunerako edo bateraezintasunerako lege-arrazoirik ez izatea. Salbuespena: araudiak aurreikusitako aukera-eskubidea.

h) Administrazio-agiriak emateagatiko tasa arautzen duen indarreko udal ordenantza fiskalean aurreikusitako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana. C2 azpitalderako tasaren zenbatekoa 10,00 eurokoa da, 2026ko ekitaldirako, baina zenbateko hori 2027ko ekitaldirako onartzen diren ordenantza fiskaletan ezarritakoaren arabera eguneratu ahal izango da. Langabezian daudenak tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, eta enplegu-eskaeraren txartela aurkeztu beharko dute hori egiaztatzeko. Baldintzak ez betetzeagatik, prozesua ez gainditzeagatik edo deialdian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik hautaketa-prozesutik baztertuta izateak ez du eragingo azterketa-eskubideak itzultzea.

i) Aldez aurretik eskaera egitea.

Hautaketa-prozesu honetako izangaiek beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta bertan jasotako helburuetarako erabiltzeko baimena eman beharko dute, berariaz.

Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko dira, baita hautaketa-prozesuan zehar ere, eta plantillako langile lan-kontratudun finko gisa kontratatu arte eduki beharko dira, c) atalean —gaitasun funtzionalari buruzkoan— adierazitakoa izan ezik, zeina erakunde autonomoaren Lan Osasuneko Zerbitzuek egiaztatu beharko baitute.

6. Eskabideak

6.1. *Epea*

Hautaketa-prozesuan onartua izatea eskatzeko eskabide normalizatuak hogei (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi honen laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabide normalizatu horietan, izangaiek adierazi beharko dute deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela.

6.2. *Eskabidea aurkezteko modua eta eskaeraren betekizunak*

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute eskabidea, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskabidea beteta, honako helbide honetan: https://egoitza.basauri.eus/eu.

Eskabideak helbide elektroniko horretan ezarritako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira.

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako edozein bulegotan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Izangaiek, dagozkien hautaketa-probetan onartuak izateko eta parte hartzeko, eskabidearen atal guzti-guztiak bete beharko dituzte, eta adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, bosgarren oinarrian ezarritakoaren arabera, eta, betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den data aintzat hartuta, eta alde batera utzita hautaketa-prozesua amaitzean ere egiaztatu behar izatea. Hau da, izangaiek ez dituztela egiaztagiriak aurkeztu beharko eskabidearekin batera, Epaimahaiak eskatzen dituenean baizik.

Izangaiek honako hauek jaso beharko dituzte eskabideetan:

a) Datu pertsonalak.

b) Aurkeztutako titulazio akademikoa, zeina deialdian parte hartzeko baldintza gisa eskatu baita.

c) Azterketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

d) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, halakorik badute. Bestela, deialdi honen 9.1.3 oinarrian, hirugarren azterketari dagokion atalean, ezarritako moduan eta epean egiaztatuko da hizkuntza-eskakizuna.

e) Era berean, deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko dute. Merezimenduak 11.3 oinarrian ezarritako epean eta moduan egiaztatuko dituzte. Hautaketa-prozesuak eskatzen duen gainerako dokumentazioa hamabigarren oinarrian adierazten den moduan aurkeztuko dute soilik.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak berekin dakar, halaber, baimena ematea Udalaren Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko langileek, eskatutako gaitasun funtzionala egiaztatzeko, egokitzat jotzen dituzten kontrolak edo azterketak egiteko, prozesuaren edozein unetan.

Oinarri hauetan aipatzen diren hautaketa-prozesuaren emaitzekin lan-poltsa bat eratzea aurreikusten da. Horretarako, izangaiek, prozesu horietan parte hartzeko eskaeran, adierazi beharko dute baimena ematen dutela Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko honako datu hauek: izen-abizenak, NANa, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra eta esklusiboa izango da enplegu-eskaintzak jaso ahal izatea, legez aurreikusitako baldintzetan; eta, izangaiek datuak lagatzearen aurka daudela espresuki adierazten ez badute, horren alde daudela ulertuko da. Era berean, izangaiek emandako datuak erakunde autonomoaren ardurapeko fitxategian sartuko dira.

Espainiako nazionalitatea ez dutenek euskarara edo gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztu beharko dute adierazitako dokumentazio osoa. Itzulpena dagokion kontsulatuak edo bulego diplomatikoak gaitutako zinpeko itzultzaileak egindakoa izan beharko da.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, berriz, jatorrizko ziurtagiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuko dira.

6.3. *Eskaerak ez onartzea eta zuzentzea*

Eskaera behar den epean eta moduan aurkezten ez bada, eta ezarritako tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingo da, akatsa zuzentzeko aukerarik gabe.

Bestalde, eta aurrerago adierazten den bezala, 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat etorriz, eskabideetan akatsen bat egonez gero, errekerimendua egingo zaio interesdunari, Basauri Kirolaken iragarki-taulan eta webgunean iragarkia jarrita, hamar egun balioduneko epean eskabideko gabezia edo akatsa zuzen dezan, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

6.4. *Desgaitasuna duten pertsonak*

Desgaitasuna duten pertsonek denboran, baliabideetan edo bietan egokitzapenak egitea behar badute hautaketa-probak gainerako izangaien baldintza beretan egiteko, eskaera hori berariaz egin beharko dute, parte hartzeko eskabidean horretarako gaitutako atalean, eta eskatzen duten egokitzapen mota zehaztu beharko dute. Gainera, alegatutako desgaitasuna egiaztatu beharko dute.

6.5. *Datuak babestea*

Oinarri hauen xede den hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du izangaiak baimena ematen duela eskaeran jasotako datu pertsonalak (izen-abizenak, NANa eta prestakuntza-maila) tratatzeko, eta, beraz, datu horiek argitaratzeko aldizkari ofizialetan, iragarki-tauletan, webgunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan. Era berean, hori eginda, izangaiak baimena ematen du bere datuak IVAPek edo erakunde eskudunak euskararen edo beste edozein hizkuntzaren ezagutza-maila egiaztatzeko, eta, oro har, Epaimahaiak, erakundeak edo enpresak berak, hala badagokio, hautaketa-prozesuari dagozkion probak behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko behar diren datuak egiaztatzeko ere bai.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

Publikotasun-printzipioak arautzen du oinarri hauen xede den hautaketa-prozesua, eta, beraz, ez da eskabiderik onartuko izangaiak ez badu baimendu bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako erabiltzea.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, honako helbide honetara idatzi beharko dute: Basauri Kirolak KUE-Langileen Atala, Artunduaga auzoa z.g., 48970-Basauri, edo IMDofertaempleo@basauri.eus helbide elektronikora.

7. Izangaiak onartzea

7.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko da, erakunde autonomoko lehendakariaren ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan, bazter utzitakoak kanpo uzteko arrazoiak eta zuzendu beharreko akats edo hutsuneak dituzten kasuak zehaztu beharko dira. Zerrenda horretan, izangaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia —Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera—, eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia agertuko dira. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Udalaren webgunean ere jarriko da.

10 egun balioduneko epea egongo da akatsak edo ez-betetzeak konpontzeko edo onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko, ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

Epe hori igarota, beste ebazpen bat emango da, non, hala badagokio, erreklamazioak eta zuzenketak ebatziko baitira, eta onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartu. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Basauri Kirolakeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean jarriko da ikusgai. Erreklamazio berririk aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, automatikoki.

7.2. Onartuen eta baztertuen eta atzera egin dutenen behin betiko zerrendak onartzen dituen lehendakaritzaren ebazpenaren aurka, izangaiek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko dute, bi hilabeteko epean, edo, bestela, aukerako berraztertzeko errekurtsoa, hilabeteko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztutako errekurtsoa ez bada ebatzi probak egin behar diren datarako, izangai interesdunek probak egin ahalko dituzte, kautelaz, eta neurri horren pean egindako azterketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

7.3. Onartuen eta/edo baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, hautaketa-prozesuan zehar egin beharreko iragarpen guztiak Udalaren webgunean eta iragarki-taula elektronikoan argitaratuko dira.

7.4. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Azkenean hautatuak izaten badira, izendapenaren aurretik aurkeztu behar duten dokumentaziotik ondorioztatzen bada baldintzaren bat ez dutela betetzen, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte. Era berean, hautaketa-prozesuaren edozein unetan, Epaimahaiak jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat, interesdunari entzun eta gero, hura prozesutik baztertzeko proposatu beharko dio organo eskudunari, eta izangaiak parte hartzeko eskabidean adierazitako zehaztasunik ezak edo faltsukeriak jakinaraziko dizkio.

8. Epaimahai Kalifikatzailea

8.1. *Izendapena*

Lehendakaritzaren ebazpen bidez finkatuko dira hautaketa-epaimahairako izendatutako kideak, bai eta lehenengo ariketa egiteko tokia, data eta ordua ere.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

8.2. *Osaera*

Epaimahaiaren osaerak bat egingo du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoarekin. Edozelan ere, Epaimahaiak honako kide hauek izango ditu: epaimahaiburua, idazkari bat eta lau epaimahaikide, zeinen artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta izendatutako bat egongo baita.

Epaimahaiko kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatzen den maila bereko edo altuagoko titulazio akademikoa izan beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, bete beharreko plazaren ezagutza-arlo berekoak izan beharko dute. Gauzak horrela, Epaimahaiaren osaera kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioetara egokitu beharko da, eta, era berean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasunera joko da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Euskararen ezagutza-probarako izendatutako epaimahaikideak proba horretan bakarrik jardungo du, ez bada berariaz besterik finkatzen dela.

Epaimahaikideen erdiek, gutxienez, deialdiaren xede diren lanpostuen artean nagusi den mailako hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa egiaztatua izan beharko dute. Hala xedatzen du Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak.

Epaimahaikide izatea norberaren izenean izango da beti, eta ezingo da inoren izenean edo inoren ordezkari gisa jardun.

8.3. *Abstentzioa eta errekusazioa*

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezingo dute organo horretan parte hartu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluak jasotako egoeraren bat ematen denean, eta erakundeko lehendakariari jakinarazi beharko diote. Bestalde, izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahalko dituzte, aipatutako Legearen 24. artikuluari jarraituta, baldin eta aurreko artikuluan jasotako arrazoiren bat ematen bada.

8.4. *Jarduteko arauak*

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-18 artikuluetan zehaztutako arauen arabera jardungo du Epaimahaiak. Nolanahi ere, epaimahaiburuaren aginduz bilduko da, idazkariak deialdia egin ondoren, prozesua hasi baino lehenago, behar besteko aurrerapenarekin. Era berean, Epaimahaia behar bezala eratzeko, beharrezkoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria, edo, hala badagokio, haien ordezkoak, eta kideen erdiak, gutxienez, bertaratzea.

Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, zeinak ez baitu botorik izango.

Epaimahaiaren erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du.

Epaimahaiburuaren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, hura bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, antzinatasun handiena duen eta adinez zaharrena den epaimahaikideak hartuko du haren lekua, hurrenkera horretan. Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, hura bertaratu ez bada, gaixorik badago edo berari eragiten dion legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, epaimahaikide bat izendatuko du Epaimahaiak, gehiengoaren erabakiz, idazkari-lanak egiteko.

Epaimahaiak aholkulariak deitu ahalko ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautaketa-prozesuaren proba batzuetan edota guztietan. Hala xedatzen du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak.

Konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu Epaimahaiak. Ari ketak zuzentzerakoan, ahalegina egingo da izangaien anonimotasuna bermatzeko.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

8.5. *Gaitasunak*

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, eta bera izango da prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta konfidentzialtasunaren eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea. Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, oinarri arautzaile hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, deialdia behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, eta oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetarako hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu.

8.6. *Egoitza*

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Epaimahaiak honako helbide hau izango du: Basauri Kirolak KUE, Artunduaga auzoa z.g., 48970-Basauri (Bizkaia).

8.7. *Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak*

Epaimahaikide izan zein Epaimahaiari laguntzeagatik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan finkatutako indemnizazioak jaso ahalko dira.

9. Hautaketa-prozedura

Izangaiak hautatzeko, oposizio-lehiaketa bidezko sarbide libreko sistema erabiliko da: hiru ariketaz (hirugarrena, euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea) osatutako oposizio-fasea egingo da lehenengo, eta, ostean, lehiaketa-fasean, merezimenduak baloratuko dira. Prozesua praktikaldiarekin osatuko da.

9.1. *Oposizio-fasea (gehienez, 70 puntu, euskara-proba kenduta)*

Oposizio-fasean, honako ariketa hauek egin beharko dira, hurrenez hurren:

9.1.1. Lehenengo ariketa: teorikoa (nahitaezkoa eta baztertzailea) Gehieneko puntuazioa: 30 puntu

Bi zati izango ditu, egun berean egitekoak, eta Epaimahaiak atsedenaldia eman ahalko die izangaiei, zati bien artean. Zatietako bakoitza gainditu beharko da:

— A) zatia: idatziz erantzun beharko zaio galdera bakoitzean aukerako lau erantzun dituen test motako galdera-sorta bati, oinarri hauetako gai-zerrendako zati orokor eta espezifikoan dauden edukiei buruz (I. eranskina).

Zuzeneko puntuazioa honako formula honen emaitza izango da: asmatutakoen kopurua ken errore kopuruaren herena (P = A – E/3). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira erroretzat hartuko.

Ariketaren puntuazioa 0-10 puntu artekoa izango da, eta hamartarren bi zifra onartuko dira. 5 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten izangaiak kanpoan geratuko dira.

— B) zatia: idatziz erantzun beharko zaio galdera bakoitzean aukerako lau erantzun dituen test motako galdera-sorta bati, deialdiaren gai-zerrendako I. eranskineko zati espezifikoan zehazten diren gaiei lotuta Epaimahaiak planteatutako kasu teoriko-praktiko bat edo batzuk ebazteko.

Zuzeneko puntuazioa honako formula honen emaitza izango da: asmatutakoen kopurua ken errore kopuruaren herena (P = A – E/3). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira erroretzat hartuko.

Ariketaren puntuazioa 0-20 puntu artekoa izango da, eta hamartarren bi zifra onartuko dira. 10 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten izangaiak kanpoan geratuko dira.

Epaimahai Kalifikatzailearen esku geratzen da galderen kopurua eta ariketaren iraupena zehaztea. Ariketa egin aurretik emango dute argitara.

Epaimahaiak ahalmena du A) atala gainditzen ez duten izangaiei B) atala ez zuzentzeko.

Kanpoan geratuko dira Epaimahaiak ariketaren bi ataletako bakoitza gainditzeko ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten izangaiak.

Hautaketa-sistema behar bezala antolatze aldera, Epaimahai Kalifikatzaileak, eska daitekeen gutxienekoa eta proba honetan erakutsitako ezagutza-maila kontuan hartuta,

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

eta izangaiak nor diren jakin aurretik, proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa erabaki ahal izango du, eta erabaki hori argitara emango du.

Lehenengo ariketaren kalifikazioa ariketaren bi zatietan lortutako puntuazioaren batura izango da, aintzat hartuta, betiere, atal biak gainditu behar direla.

9.1.2. Bigarren ariketa: praktikoa (nahitaezkoa eta baztertzailea). Gehieneko puntuazioa: 40 puntu

Izangaiek gai-zerrendako gaiarekin lotuta Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko bat edo gehiago ebatzi beharko dituzte, lanpostuaren eginkizunekin lotutako zereginak egiteko duten gaitasuna balioesteko.

Kasu praktikoak garatu ahalko dira idatziz eta/edo jarduera baten edo batzuen bidez. Funtsean, baloratuko da planteatutako ariketa praktikoak ebazterakoan analisi-gaitasuna eta ezagutza teorikoak modu arrazoituan aplikatzeko gaitasuna. Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako irtenbideei buruz galdetu ahalko dio izangaiari, eta eragozpenak, planteamendu alternatiboak eta zehaztasun-eskaerak planteatzeko, edo kasu edo balizko arazoetarako egokitzapenak egiteko eskatu ahalko dio, errealitatean ematen diren egoerak eta rolak irudikatzen saiatzeko.

Epaimahaiak erabakiko du ariketa hori egiteko gehieneko denbora, proba hasi aurre-aurretik.

Kasu praktikoetan jarduera bat edo batzuk egin behar badira, izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren ebazpen bidez ezarritako hurrenkerari jarraituta —ebazpen horren bidez, Estatuko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen sarbiderako Erregelamendu Orokorrean aipatzen den zozketaren emaitza argitaratzen da, zeina indarrean egongo baita bigarren ariketa egiteko eguna, ordua eta lekua zehazten dituen Epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den datan—.

Proba hasi aurretik, epaimahaiburuak (edo hark eskuordetutako epaimahaikideak) probaren fitxa formalizatuen edukiaren berri emango die izangaiei, ozenki. Fitxa horietan zehaztuko dira egin beharreko lanak, erabilgarri egongo diren materialak, proba egiteko denbora eta lanen kalitate-estandarrak.

Ariketa horretan, honako hauek ebaluatuko dira: kasu praktikoak ebazteko gaitasuna; materiala, makinak eta lan-teknikak egokiro erabiltzea; lanak garbitasunez eta segurtasunez egitea, eta lanpostuaren zereginei dagozkien ezagutza teoriko-praktikoak modu arrazoituan aplikatzea (hala nola iturgintzako, elektrizitateko eta igeltserotzako oinarrizko eragiketak, aldageletako elementuak konpontzea, garbiketa-makinak erabiltzea, igerilekuetarako produktu kimikoak dosifikatzea, erabiltzaileekin gorabeherak konpontzea, ekipo informatikoen eta ohiko erabilerako aplikazioen oinarrizko erabilera, bai eta zerbitzua behar bezala emateko antzekoak, osagarriak, instrumentalak edo beharrezkoak diren beste batzuk ere, lanbide-sailkapeneko taldearen arabera).

Basauri Kirolak KUE erakundeak hornituko ditu proba egiteko beharrezko materialak, baliabide teknikoak eta lanabesak.

Gehienez, 40 puntu lortu ahalko dira ariketa horretan, eta hamartarren bi zifra onartuko dira. Eta, gutxienez, 20 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Hautaketa-sistema behar bezala antolatze aldera, Epaimahai Kalifikatzaileak, eska daitekeen gutxienekoa eta proba honetan erakutsitako ezagutza-maila kontuan hartuta, eta izangaiak nor diren jakin aurretik, proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa ezarri ahalko du, eta erabaki hori argitara emango du.

Oposizio-fasearen kalifikazioa bi ariketetako bakoitzean lortutako puntuazioaren batura izango da —teorikoa (betiere, zatietako bakoitza gainditu bada), eta praktikoa—.

9.1.3. Hirugarren ariketa. Euskara: hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba

Nahitaezkoa eta baztertzailea, ariketaren xedea da euskarako B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea. Deitutako lanpostuak nahitaezko B2B2 hizkuntza-eskakizuna du esleituta, eta, beraz, hori egiaztatzea sartzeko baldintza da. Ariketa «Gai» edo «Ez Gai» gisa kalifikatuko da, eta gainditu ezean, izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

Euskara-proba egitetik salbuetsita egongo dira hura hasi aurretik Epaimahaiari egiaztatzen diotenak honako egoera hauetako batean daudela:

a) B2B2 hizkuntza-eskakizuna, hori baino goragokoa, edo horren baliokidea den titulua edukitzea, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat.

b) Proba egitetik salbuetsita egotea, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, baldin eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota badago.

Hizkuntza-eskakizuna honelaxe egiaztatuko da:

a) IVAPek, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiriak edo tituluak dituztenek baimena eman ahalko diote Basauri Kirolak KUE erakundeari, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, ziurtagiri horiek egiaztatzeko.

b) Aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituztenek, erakundeari egiaztatzeko baimenik ematen ez diotenek edo ziurtagiriok adierazitako dataren ondoren lortzen dituztenek alegatutako tituluaren edo ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, euskara-proba egin aurretik.

c) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizunaren azterketa egitetik salbuetsita daudenak ikasketak osorik edo zati batean euskaraz egin izanagatik, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, euskara-proba egin aurretik, ikasketak egin dituzten zentroak edo unibertsitateak egindako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

Nolanahi ere, euskarako edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehieneko epea euskarako azterketa egiten den data izango da.

Egin beharreko egiaztapenak egiteko, interesdunak berariazko baimena emango dio Basauri Kirolak KUE erakundeari, ziurtagiria edo haren salbuespena aipatutako erregistroan egiazta dezan. Nolanahi ere, interesdunak bere datuak kontsultatu ahal izango ditu Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, honako esteka honetan:

— https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/.

9.2. *Lehiaketa-fasea (gehienez, 30 puntu)*

Lehiaketa-fasea hasiko da oposizio-fasea amaitu eta gero, eta bigarren hori gainditu dutenek hartuko dute parte. Lehiaketa-fasea ez da baztertzailea izango, eta fase horretan lortutako puntuazioak ez dira kontuan hartuko oposizio-faseko probak gainditzeko.

Eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira lehiaketa-fasean. Merezimendu horiek behar bezala egiaztatu beharko dira, Epaimahaiak iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratutako iragarkian ezarritako epean. Merezimenduak baloratuko dira oinarri hauetan ezarritakoaren arabera, eta ezingo da baloratu bestelako merezimendurik.

Ez da baloratuko inskripzio-eskaeran alegatu ez den merezimendurik, nahiz eta espediente pertsonalean jasota egon edo dokumentazio hori Basauri Kirolaken edo Basauriko Udalaren esku egon. Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte egindakoak baino ez dira baloratuko, eta hori izango da, halaber, eskatutako baldintzak betetzeko erreferentzia-data.

Honako merezimendu hauek baloratuko dira:

a) Lan-esperientzia: gehienez, 20 puntu

Dealdi honen xede den titulazioa eskatzen duen esperientzia baloratuko da. Gehienez ere, 20 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:

— Administrazio Publikoaren kirol-instalazioetan (deialdia egin duen administrazioa barne) C taldeko C2 azpitaldeko plazei dagozkien mantentze, zaintza eta kontroleko laguntzaile gisa emandako zerbitzuengatik: 0,0183 puntu, lan egindako egun bakoitzeko.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

— Titulartasun pribatuko kirol-instalazioetan deialdi honen 3. oinarrian deskribatutako eginkizunen baliokideak dituzten lanpostuetan (besteren kontura edo norberaren kontura) emandako zerbitzuengatik: 0,0122 puntu, lan egindako egun bakoitzeko.

— Beste administrazio publiko batzuetan deitutako lanpostuaren antzeko eginkizunak dituztenetan emandako zerbitzuengatik, baldin eta C taldeko edo C2 azpitaldeko plazei edo AP lanbide-taldeetako plazei badagozkie: 0,0092 puntu, lan egindako egun bakoitzeko.

Administrazio publikotzat hartuko da indarrean dagoen araudian jasotakoa; bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 2. artikulua. Ez dira baloratuko zerbitzu zibilak edo merkataritzakoak alokatzeko kontratuak, bekak eta praktika profesionalak, ezta esperientzia profesionalarekin lotutako merezimenduak ere, baldin eta ez bada berariaz adierazten betetzen den lanpostuaren izena edo kategoria profesionala eta kontratazio- edo izendapen-aldien hasiera- eta amaiera-data.

Esperientzia hori Epaimahaiak egiaztatu eta baloratuko du, baina bakar-bakarrik zerbitzuak eman diren Administrazioak emandako ziurtagiri ofizialen bitartez. Ziurtagiri horietan lan egindako tartearen hasiera- eta amaiera-datak, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak jasoko dira. Sektore pribatuan izandako lanbide-esperientzia egiaztatzeko, berriz, honako hauek aurkeztu beharko dira: batetik, lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, non jasoko baitira alta-aldiak, lan-kontratuak edo lan-harremana egiaztatzen duen dokumentazioa, lanbide-kategoria eta betetako lanpostua, eta, bestetik, enpresa-ziurtagiria, benetan egindako eginkizunak zehazten dituena, eta beharrezkotzat edo egokitzat jotzen den beste edozein dokumentazio osagarri ere bai, eginkizunak deialdi honen 3. oinarrian deskribatutako funtzioen baliokideak direla egiaztatu ahal izateko.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan aritutako tarteak lanaldi osoko gisa zenbatuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 c) artikuluak xedatutakoa betetzeko, lanbide-esperientziaren ondorioetarako honako hauek hartuko dira kontuan: izangaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko erraztasunak ematea, bai eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere.

b) Prestakuntza: gehienez, 8 puntu

— Laneko arriskuen prebentzioari, goialdeetako lanei, legionellari eta gizarte-trebetasunen gaineko ikastaroak: gehienez, 5 puntu, ikastaro bakoitzeko honelaxe xehatuta:

- 20 ordutik beherako ikastaroak: 0,25 puntu.
- Ikastaroak, >/= 20 ordu eta < 200 ordu: 0,75 puntu.
- >/= 200 orduko ikastaro bakoitzeko: 1,25 puntu.

Aurkeztutakoek zentro ofizialek emandako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaro homologatuak izan beharko dute, eta diploma eta/edo bertaratze-ziurtagiri bidez edo, hala badagokio, aprobetxamendu-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Horietan, ikastaroen iraupena (eskola-orduak) adierazi beharko da, nahitaez.

Administrazio Publikoko Eskolek (IVAP, INAP, IEAP) eta zentro ofizialek antolatutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak baloratuko dira, betiere bertaratze-ziurtagiria zentro ofizialek emana bada. Ondorio horietarako, zentro ofizialtzat hartuko dira administrazio publikoak, unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren mendeko ikastetxeak edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-departamentuak eta ministerioak, sailak, merkataritza-ganberak edo elkargo ofizialak. Ez dira baloratuko akademia pribatuek emandako ikastaroak, ezta fakultate edo eskolako ikasketa-plan ofizialetako ikasgaiei dagozkienak ere.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

— Informatikako ezagutzak: gehienez, 3 puntu lortu ahalko dira: 0,5 puntu, oinarrizko eta maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko, eta, 1 puntu, honako ziurtagiri aurreratu hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010. Oinarrizko maila.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010. Oinarrizko maila.
- Internet. Oinarrizko maila.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010. Maila aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010. Maila aurreratua.
- Internet. Maila aurreratua.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010. Maila bakarra.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da. Ondorio horietarako, modulu beraren barruan, maila aurreratua egiaztatzen dutenei ez zaie oinarrizko maila baloratuko, eta, maila bakarra, aurreratutzat baloratuko da.

c) Beste merezimendu batzuk: gehienez, 2 puntu

— Gidabaimena. B baimena: 2 puntu.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa

Lehiaketa-fasean guztira lor daitezkeen puntuak ezin dira izan 30,00 (hogeita hamar) baino gehiago. Epaimahaiak, lehiaketa-faseko oposizio-ariketak eta merezimenduen balorazioa amaitu ondoren, sailkapen-hurrenkera ezarriko du, handienetik txikienera, hautaketa-prozesuaren bi faseak batuta.

10. Hautaketa prozesuaren garapena

10.1. *Argitaratzea*

Oposizio-fasearen lehen ariketaren tokia, data eta hasiera-ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko dira, hautaketa-prozesurako onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko ebazpenarekin batera. Hala xedatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

Oposizioko gainerako ariketei buruzko iragarkiak webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko ditu Epaimahaiak. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko dituzte, gutxienez.

Halaber, ariketa bakoitzaren puntuak aditzera emango dituzte Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratutako iragarki bidez.

10.2. *Deialdia*

Izangaiei behin baino ez zaie deituko ariketa bakoitzerako. Hala, edozein ariketa egiteko deitu, eta une horretan azaltzen ez badira, ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea galduko dute, automatikoki, eta, beraz, hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta Epaimahaiak onartutako kasuetan izan ezik. Gauza bera gertatuko zaie nahitaezko probak jada hasita daudela ager tzen diren izangaiei. Borondatezko probetara agertu ez edo berandu agertuz gero, joko da proba horiei uko egiten zaiela.

10.3. *Izangaiek jarduteko hurrenkera*

Probak egiteko izangaien hurrenkera ezarri behar izanez gero, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak horretarako eginiko zozketaz erabakiko da, 364/1995 Errege-Dekretuaren 17. atalarekin bat. Zozketan ateratako letrarekin hasten den lehen abizena duen izangairik ez badago, letra horren hurrengora joko da.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

10.4. *Identifikazioa*

Epaimahai Kalifikatzaileak errekerimendua egin ahalko die izangaiei, edozein unetan, behar bezala identifikatu daitezen. Ildo horretan, izangaiek NANa, edo, Epaimahaiaren iritziz, nortasuna egiaztatzeko egokia den beste edozein agiri ofizial eraman beharko dute oposizio-faseko ariketa bakoitzera (pasaportea, gidabaimena, atzerritarren identifikazio-zenbakia eta abar).

10.5. *Denborak eta baliabideak egokitzea*

Epaimahaiak ahalmena izango du deialdi honetako frogak aurrera eramateko egoki iritzitako denbora- eta baliabide-egokitzapenak egiteko eskaera-orrian desgaitasunen bat adierazi duten izangaientzat, baldin eta egokitzapen(ar)en ondorioz dagokion probaren edukia hutsaltzen ez bada edo eskatutako gaitasun-maila jaisten ez bada, eta, betiere, beste izangaiekiko aukera-berdintasuna bermatuta. Hala ezartzen dute 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikuluak eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74.4 artikuluak.

10.6. *Haurdunaldia, edoskitzaroa eta erditzea*

Haurdun, erditzeko egoeran edo edoskitzaroan dauden emakumeek egokitzapen materialak eskatu ahalko dituzte. Horretarako, Basauri Kirolak KUE erakundeari jakinarazi beharko diote, probak egin baino bost egun baliodun lehenago, gutxienez.

Behar bezala egiaztatutako haurdunaldi edo erditzea dela-eta izangairen batek ezin badu hautaketa-prozesua osatu edo ezin badu ariketaren bat egin, bere egoera prozesua amaitzearen eta atzeratutako faseak gainditzearen baldintzapean geratuko da. Fase horiek atzeratu bai, baina ezingo da kaltetu gainerako izangaiek prozesua arrazoizko tarte batean ebazteko duten eskubidea. Ildo horretan, Epaimahaiak baloratuko du egokitzapenak nola egin, probak egiteko uneari dagokionez, eta, nolanahi ere, atzeratutako faseak egin beharko dira hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik.

10.7. *Ariketen arteko tartea*

Oposizio-faseko ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasi aurretik, 72 ordu igaro beharko dira, gutxienez, eta 45 egun, gehienez. Hala ere, Epaimahaiak, egokitzat jotzen badu, erabaki ahalko du saio berean azterketa bat baino gehiago egitea.

11. Prozesuaren emaitza eta dokumentuak aurkeztea

11.1. *Emaitzak argitaratzea*

Ariketa bakoitzeko puntuazioak Basauri Kirolak KUE erakundearen iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuta jakinaraziko dira.

Oposizio-faseko ariketa bakoitza zuzentzen amaitzean, Epaimahaiak gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, iragarki-taulan eta webgunean.

11.2. *Azterketak berrikustea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioak*

Arau orokor gisa, hamar (10) egun balioduneko epea ezartzen da egindako azterketak berrikusteko edo horien kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Epe horiek biak zenbatzen hasiko dira Epaimahaiak lehen aipatutako behin-behineko zerrenda argitaratzen duen datan.

11.3. *Merezimenduak aurkeztea eta hautaketa-prozesuko kalifikazioa*

Oposizio-fasea amaitu ondoren, hura gainditu duten izangaiek aurkeztutako merezimenduak baloratuko dira. Ildo horretan, oposizio-faseko azken ariketaren emaitzarekin batera, ariketa baztertzaile guztiak gainditu izanagatik lehiaketa-fasera pasatu behar diren izangaien zerrenda jarriko du jendaurrean Epaimahaiak, eta dei egingo die, ezarritako epean deialdian aurreikusitako merezimenduen egiaztagiriak aurkez ditzaten. Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte lortutako merezimenduak baloratuko dira.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuazioen batura izango da. Horretarako, Epaimahaiak gainditu duten izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du, fase bakoitzean lortutako puntuazioak xehatuta. Interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute lehiaketa-faseko puntuazioari buruzko alegazioak aurkezteko. Era berean, lehiaketan alegatutako merezimenduren bat behar bezala egiaztatuta ez badago, Epaimahai Kalifikatzaileak dagokion egiaztapena edo zuzenketa eskatu ahal izango du, hamar egun balioduneko epe horretan.

Merezimenduak baremotuko dira izangai bakoitzak aurkeztutako dokumentazioaren gainean. Dokumentazioa adierazitako epearen barruan aurkezten ez dutenak — ezinbesteko kasuetan izan ezik— edo faltsutzat jotzen diren dokumentuak aurkezten dituztenak ezin izango dira izendatuak izan, eta haien jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira, hargatik eragotzi gabe parte hartzeko eskaerak faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Ez da beharrezkoa izango Basauri Kirolaken esku dagoen dokumentazioa aurkeztea, baina, halakoetan, inguruabar hori adierazi egin beharko da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 a) artikuluan xedatutakoa aplikatuta, gaikuntza-berdintasuna badago, emakumeei lehentasuna emango zaie administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta haien ordezkaritza % 40tik beherakoa bada, salbu eta beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexuagatiko diskriminaziorik eragiten ez dutenak; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

Aurreko paragrafoan araututakoa alde batera utzi gabe, berdinketak bere horretan badirau, ordena honako hauen arabera ezarriko da: lehenik, oposizioko azken ariketan (praktikoan) puntuaziorik handiena lortu duenaren alde; bigarrenik, oposizioko lehen ariketan (teorikoa) puntuaziorik handiena lortu duenaren alde; hirugarrenik, lehiaketa-faseko Esperientzia atalean puntuazio handiena izan duenaren alde; eta, laugarrenik, berdinketak jarraitzen badu, lehiaketa-faseko Prestakuntza atalean puntuazio handiena izan duenaren alde. Irizpide horiek nahikoak ez badira, abizenen hurrenkera alfabetikoaren arabera ebatziko da berdintasuna. Horretarako, Estatuko Funtzio Publikoaren Idazkaritzak urtero egindako zozketaren emaitza argitaratzen duen letra hartuko da erreferentziatzat. Zozketa hori Estatuko Administrazioaren zerbitzura Langileak Sartzeko Erregelamendu Orokorrak aipatzen duen zozketaren emaitza da, zeina indarrean baitago izangai gaindituen behin-behineko zerrenda eta azken kalifikazioa argitaratzen diren egunean. Lehen abizena letra horretatik hasten dutenek hasiko dute, eta gorantz jarraituko dute, Atik Zra.

12. Ariketak gainditu dituztenen zerrenda eta izendatzeko hautatutakoen proposamena

Epaimahai Kalifikatzaileak, hala badagokio, erreklamazioak ebatzi, eta hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Jarraian, langile lan-kontratudun finko (probaldiarekin) izateko proposatutako izangaien zerrenda argitaratuko du Epaimahai Kalifikatzaileak, eta hamabost (15) egun balioduneko epea zabalduko du, 5. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentu konpultsatuak aurkez ditzaten. Horiekin batera, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.

b) Izangai atzerritarrek Basauri Kirolak KUE erakundearen jakinarazpen bat jasoko dute, non adieraziko baitzaie beren egoera dela-eta zein agiri aurkeztu behar dituzten, nahitaez.

c) Zinpeko adierazpena, non adieraziko baita izangaia ez dagoela ez funtzio publikoetan jarduteko desgaituta, ez edozein administrazio publikotako zerbitzutik diziplina-espediente bidez baztertuta, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean herri administrazioetako langileentzat aurreikusitako ezintasunerako edo bateraezintasunerako lege-arrazoietan sartuta ere.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

d) Espainiako nazionalitaterik ez duten izangaiek zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta esan beren estatuan ez daukatela funtzio publikora sartzea galarazten dien diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik.

e) Hautatutako izangaiek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien proba eta osasun-azterketak egin behar ko dituzte, Erakunde autonomoaren lan-osasun zerbitzuetan. Lanpostua betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko osasun-probak eta osasun-azterketa egiteko deialdia era pertsonalizatuan egingo dira.

Izendatuak izateko proposatutako izangaiek ez badute dokumentazioa aurkezten aipatutako epean —ezinbesteko arrazoiak gertatzen direnean salbu—, edo ez badute egiaztatzen eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela, ezingo dute izendatuak izan, eta beren jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira. Horrek ez du eragotziko eskabidean faltsukeria erabili izanagatik sor litekeen erantzukizuna leporatzeko aukera. Kasu horretan, izangaiak hautaketa-prozesuaren emaitzan lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, aipatutako agiriak aurretiaz aurkeztu eta gero.

13. Hautatutakoen behin-betiko zerrenda

Hautaketa-prozesua osatzen duten proben kalifikazioa amaitu eta aurreko apartatuan aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Epaimahaiak langile lan-kontratudun finko izateko hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren hurrenkeran. Zerrenda horretan daudenen kopuruak ezingo du gainditu Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikuluan ezarritakoaren arabera deitutako plaza guztien kopurua, eta dagokion izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori organo eskudunari bidalita.

Aldi berean, azken saioaren akta bidaliko dio Epaimahaiak organo eskudunari, non agertu beharko baitira, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, proba guztiak gainditu, baina deialdiko plazen kopurua gainditu duten izangai guztiak. Hori egin beharko da, plaza lortu duen izangairen batek hura jabetzan hartzen ez duen kasuetarako. Edozelan ere, azken zerrenda horretan egoteak ez dakar inolako eskubiderik.

14. Langile lan-kontratudunak kontratatzea

14.1. Epaimahaiaren proposamena eta izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu, eta, oinarri hauetan xedatutakoarekin bat badatoz, Basauri Kirolak KUE erakundeko lehendakariak, arrazoituta, hautaketa-prozesua ebatziko du, eta langile lan-kontratudun finko gisa kontratatuko ditu proposatutako pertsonak.

14.2. Kontratazio-ebazpenak lanposturako behin-behineko atxikipena ere jasoko du, zeina behin-behinekoa izango baita, probaldia aurreikusten den bitartean.

14.3. Probaldia.

Bi hilabeteko probaldia egongo da. Horrek irauten duen bitartean, kontratatutako pertsonak modu arruntean beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, ezarritako aurreikuspenen arabera.

Ebaluazio-prozedura jarraitua izango da praktikaldian zehar, eta bakar-bakarrik etengo da aldi horretan zehar puntualki edo metatuta hamabost egun natural baino gehiago igaro badira lanera joan gabe. Kasu horretan, eragindako pertsonak ezarritako aldi osoa bete beharko du.

Probaldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, honako aldagai hauek baloratuta:

— Eginkizunak eta betebeharrak betetzea.

— Egindako lanaren kalitatea.

— Ikasteko jarrera.

— Ekina izatea.

— Ardura eta egokitzeko gaitasuna.

— Elkarlanerako jarrera.

— Herritarrekin eta lankideekin izandako harremanak.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

Ebaluazio Batzordea eratuko da praktikaldia baloratzeko. Honelaxe osatuta egongo da batzorde hori:

— Batzordeburua: Basauri Kirolak KUE erakundeko zuzendari kudeatzailea edo hark eskuordetzen duen langile lan-kontratudun finkoa.

— Bi batzordekide, Basauri Kirolak KUEko langile lan-kontratudun finko direnak. Beste langile finko batzuei eskuordetu ahal izango dizkiete beren eginkizunak.

— Lehen aipatutako batzordekideetako batek idazkari-lanak egingo ditu.

— Era berean, langileen ordezkariek beste batzordekide bat izendatu ahal izango dute, hitzarekin eta boto-eskubiderik gabe.

Ebaluazio Batzordean, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiak dituzten emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua bermatuko da. Gainera, Epaimahai Kalifikatzaileentzako ezarritako funtzionamendu-arau berak izango ditu Batzordeak ere, eta praktika- eta prestakuntza-aldia «Gai» edo «Ez gai» gisa kalifikatuko du.

Probaldia amaitzean, azken ebaluazioa egingo dute.

Ebaluazio Batzordeak erakunde autonomoko lehendakariari bidaliko dio hautaketa-prozesuaren behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, praktikaldia gainditu eta lanpostuaren baldintzak betetzen dituzten izangaiak langile lan-kontratudun finko izendatzeko eta kontratatzeko proposamena egin dezan. Proposamena erakunde autonomoko lehendakariak onartu beharko du.

Probaldia gainditzen ez bada, izangaiak izendatua eta kontratatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, epaimahaiburuaren ebazpen arrazoituaren bidez.

Aurretik Basauri Kirolak KUEn funtzio berberak bete dituzten pertsonei Langileen Estatutuaren 14.1 artikulua aplikatuko zaie.

15. Lan-poltsa, eta hura kudeatzeko irizpidea

Hautaketa-prozesuaren emaitzarekin, hasiera batean 3 urteko iraupena izango duen lan-poltsa egingo da, eta antzeko eginkizunak betetzeko aldi baterako langile-beharrei erantzuteko erabiliko da.

Lan-poltsa horretan, lehenik eta behin, oposizio-fasea gainditu duten izangaien zerrenda egongo da, merezimenduak baloratu ondoren dagokien hurrenkeran, eta izangai bakoitzak lehiaketa-fasearen ondoren lortutako azken puntuazioa kontuan hartuta.

Bigarrenik, gutxienez lehenengo ariketa (nahitaezkoa eta baztertzailea) gainditu dutenei deituko zaie, gainditutako ariketetan lortutako puntuazio osoaren hurrenkeraren arabera. Gainditutako ariketetako notak bakarrik hartuko dira kontuan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortzen bada eta aldi baterako langile-beharrizanak badaude, Basauri Kirolak KUEk izangai bat hautatu ahal izango du honako prozedura hauen bidez:

a) Deialdi espezifikoak.

b) Beste administrazio publiko batzuetako lan-poltsetara jotzea.

c) Lanbidera joatea. Aurretik aipatutako bi sistemetako batean izangairik ez badago, presazko edo zailtasunezko arrazoiengatik, salbuespenez, enplegu-zerbitzu publikoetara jo ahalko da (Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 77.5 artikulua).

16. Izaera pertsonaleko datuak babestea

Hautaketa-prozesuetan zehar jasotako edo sortutako izaera pertsonaleko datuak kudeatuko dira datuen babeserako indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da hautaketa-prozesuak eta aldi baterako kontrataziorako zein bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa kudeatzeko.

Deitutako plazak lortzen dituztenek adostasun espresua emango dute segurtasun-neurriak behar dituzten, eta hautaketa-prozesurako beharrezkoak diren beren datu pertsonalak tratatzeko.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

Hautaketa-prozesuetan zehar emandako datuak laga ahal izango zaizkie horiek eskatzen dituzten administrazioei. Izangaiek nahi badute haiek titularrak diren izaera pertsonaleko datuak lagatzea, horretarako adostasun espresua eman beharko dute.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenei informazio-eskubidea bermatzearren, prozesuaren zerrendak kontsultatu ahalko dira Internet bidez, Erakunde autonomoaren helbidean (lehenago aipatutakoa).

Eskabideetako telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoa baliozkotzat joko dira. Eskabidea egiten duenari dagokio datuetan egon daitezkeen akatsez ohartaraztea edo eman daitezkeen aldaketen berri ematea.

Eskabidean adierazten dena da hartuko jakinarazpenetarako helbidetzat, ez bada ostean, espresuki eta sinesgarriro, beste bat adierazi zaiola deialdia egin duenari.

17. Gorabeherak eta aurkaratzeko bideak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztirako, hautaketa-prozesua behar bezala egiteko behar diren erabakiak hartzeko.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta deialdiaren eta Epaimahaiaren jarduketen ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

I. ERANSKINA

GAI-ZERRENDA

ZATI OROKORRA

1. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak (Atariko titulua eta I. titulua).

2. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (3/1979 Lege Organikoa). Atariko titulua eta 10. artikulua.

3. gaia. Udal-antolaketa. Espainiako 1978ko Konstituzioaren 140. artikulua eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 19. eta 20. artikuluak.

4. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. 1., 2. eta 3. artikuluak.

5. gaia. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. XI. titulua (Euskal enplegatu publikoen eskubideak, betebeharrak, jokabide-kodea, bateraezintasunak eta erantzukizunak) eta XII. titulua (Diziplina-araubidea).

6. gaia. Basauri Kirolak Kirolaren Udal Erakundearen Hitzarmen Kolektiboa (2020-05-29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua; 101. zk.). Lehenengo titulua, I. kapitulua: lanaldia (12.-17. artikulua, biak barne).

7. gaia. Basauri Kirolak Kirolaren Udal Erakundearen estatutuak. I. titulua. Atariko xedapenak (1: 6. artikulua, biak barne).

8. gaia. Basauri Kirolak Kirolaren Udal Erakundearen kirol instalazioen arau orokorrak.

9. gaia. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa. Atariko titulua eta lehen titulua.

ZATI ESPEZIFIKOA

10. gaia. 32/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, Eusko Jaurlaritzarena, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa eta segurtasun-araudia onartzen duena. Erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioaren 6., 7., 9., 10., 11., 12., 13., 22., 26., 28., 30., 31., 32., 33. eta 34. artikuluak, azaroaren 2ko 208/2004 Dekretuak sartutako aldaketak kontuan hartuta.

11. gaia. 742/2013 Errege Dekretua, irailaren 27koa, igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituena.

12. gaia. 487/2022 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, legionellosia prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun-betekizunak ezartzen dituena. I., II., III., IV. eta V. kapituluak.

13. gaia. Iturgintza eta oinarrizko saneamendua. Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak eta oinarrizko konponketak: kontzeptu orokorrak. Iturgintza-lan nagusiak. Erreminten, tresnen eta materialen tipologia ezagutzea, eta horiek erabiltzen zaintzen jakitea. Ur hotz eta beroaren barne-sare baten elementuak. Iturgintza-instalazioak zaindu, konpondu eta ordeztea (komunak, txorrotak, fluxoreak, zisternak, balbulak, sifoiak, hustubideak). Ur-ihesak antzematea eta oinarrizko buxadurak konpontzea.

14. gaia. Elektrizitatea. Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak, eta oinarrizko konponketak: kontzeptu orokorrak. Sinboloak interpretatzea. Koadro elektrikoetan osagaiak identifikatzea. Elektrikarien oinarrizko erremintak (bihurkinak, guraizeak, aliketak eta beste erreminta batzuk) ezagutzea, eta horiek erabiltzen eta zaintzen jakitea. Luminariak, lanparak, hodi fluoreszenteak, pitzarazgailuak, etengailuak, entxufeak eta fusibleak ordezkatzea, eta oinarrizko matxura elektrikoak detektatzea, ondoren horien berri emateko. Argi fluoreszente zirkuituak (pitzarazgailuak, erreaktantziak, lanpara fluoreszenteak). Zirkuitu bereziak (alarmak, larrialdietako argiak).

eek: BAO-2026a226-(II-6142)

15. gaia. Arotzeria, sarrailagintza eta igeltserotza arina. Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak, eta oinarrizko konponketak. Kontzeptu orokorrak. Arotzeriako oinarrizko zereginak. Arotzeriako oinarrizko lanabesak eta erremintak (mailuak, zerrak, trintxak, zulagailu elektrikoa, lixak, kolak, eta bestelako erremintak eta osagarriak). Mantentze- eta konponketa-lan ohikoenak: ateak, leihoak, bandak, sarrailak, pertsianak, heldulekuak eta sarraila-zilindroak doitzea, aldageletako armairuak, eserlekuak, esekitokiak, manparak eta ispiluak doitzea eta mantentzea. Alikatatu-konponketa txikiak, kaltetutako azulejuak edo baldosak ordeztea, pitzadurak mastikarekin edo igeltsuarekin estaltzea, junturak silikonaz zigilatzea eta mantentze-pintura.

16. gaia. Klimatizazioari, berokuntzari eta kirol-ekipamenduari buruzko oinarrizko ezagutzak. Galdara-gelak, bero-ponpak eta aire-iragazkiak begiz ikuskatzea (zirkuituak, airea betetzea eta purgatzea). Erradiadoreak. Galdara-gelak, elementu nagusiak. Kirol-ekipamenduaren oinarrizko mantentze-lan prebentiboak eta muntaketa- edo desmuntaketa-lanak (saskiak, ateak, zutoinak, sareak eta gortina bereizleak). Pinturaren alorreko mantentze-lan prebentibo eta zuzentzailea, eta oinarrizko konponketak: ezagutza orokorrak.

17. gaia. Laneko arriskuen prebentzioa. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa: III. kapitulua (14. artikulutik 29.era). Arriskuak eta prebentzio-neurriak kirol-instalazioak mantentzeko lanetan. Zamak eskuz manipulatzea (apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretua: 1. artikulutik 5.era eta eranskina). Goialdan lan egiteko ekipamenduak, eskuzko eskailerak erabiltzea eta aldi baterako goialdeko lanak egitea (uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua: 3. artikulua eta I. eta II. eranskinak). Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleak (485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa: 1.-6. artikuluak eta I.-VII. eranskinak). Norbera babesteko ekipamenduak (maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua: 3-9 artikuluak).

18.gaia. Segurtasuna, larrialdiak eta lehen laguntzak. Autobabeserako, larrialdietan antolatzeko, ebakuaziorako eta konfinamendurako planak. 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalarena: xedea, sistemaren jarduketak, zuhurtasun- eta autobabes-betebeharra (7 ter artikulua) eta babes zibileko planak (15. artikulua). INT/1068/2026 Agindua, urriaren 7koa: autobabes-planen edukia, antolaketa, betebeharrak, ezarpena eta mantentzea. Suteetarako segurtasuna: Eraikingintzaren Kode Teknikoa (EKT), DB-SI oinarrizko dokumentua, SS 3 (okupatzaileen ebakuazioa) eta SS 4 (suteen aurkako babes-instalazioak) sekzioak. Suteetatik babesteko instalazioen erregelamendua (513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa): 20. eta 21. artikuluak eta I. eta II. eranskinak, ekipoak eta instalazioak abiarazteari, mantentzeari eta zaintzeari buruzkoak. Suteetatik babesteko eta suteak itzaltzeko bitartekoak: su-itzalgailuak, suteetako ur-hargune hornituak, detekzio- eta alarma-sistemak. Oinarrizko lehen sorospenak: BAS jokabidea, istripu, lesio eta bihotz-biriketako geldialdien aurrean jardutea, bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) eta kanpoko desfibriladore erdiautomatikoa (KDEA) erabiltzea. Desfibriladoreei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko araudia: 9/2015 Dekretua, urtarrilaren 27koa, eta 2016ko maiatzaren 30eko Agindua: instalazioa, kokapena, seinaleztapena, mantentze-lanak, erregistroa eta erabilera.

eek: BAO-2026a226-(II-6142)